

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KARRANTZAKO HARANEAN MINDEN TRATAMENDURAKO ERAIKINAREN ETA BERE AZPIEGITUREN PROIEKTURAKO EMANDAKO LAGUNTZA, DIRU-LAGUNTZA ETA MAILEGUEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), Eusko Legebiltzarraren osokoak eta Bizkaiko Batzar Nagusiek hala eskatuta, Lanerako Planean Administrazio Publikoek Karrantzako Haranean minden tratamendurako eraikinaren eta bere azpiegituren proiekturako emandako laguntza, diru-laguntza eta maileguen fiskalizazioa egitea barne hartu du. Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), Eusko Legebiltzarraren osokoak eta Bizkaiko Batzar Nagusiek hala eskatuta, Lanerako Planean Administrazio Publikoek Karrantzako Haranean minden tratamendurako eraikinaren eta bere azpiegituren proiekturako emandako laguntza, diru-laguntza eta maileguen fiskalizazioa egitea barne hartu du. Estatuko Administrazio Orokorrak emandako diru-laguntzen espedienteak ez dira fiskalizatu, HKEEren eskumenaz kanpoko direlako.

Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Finantzatutako proiektua animalien hondakinak tratatzeko lantegia eraikitzeko da, Karrantza Haraneko abeltzaintzako ustategietatik eratorritako minda soberakina tratatu eta aprobetxatzeko industri prozesuak besarkatuko dituena.

Hona hemen Karrantzako Minda, SLk 2006tik 2010era bitartean eskuratutako laguntzak:

	Euroak milakotan		
	Emandakoa	Ordaindua	Itzulitakoa
GERORA ITZULI BEHARREKO AUERRERAKINAK			
EAE-REN ADMINISTRAZIO OROKORRA (Ikerketa Programa).....	3.500	2.300	750
DIRU-LAGUNTZAK			
EAE-REN ADMINISTRAZIO OROKORRA.....	4.000	2.720	-
BFA.....	2.000	2.000	-
ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRA.....	4.000	4.000	-
GUZTIRA	13.500	10.020	750

Hona hemen Epaitegiak atera dituen ondorio nagusiak:

1. Partaide izan diren administrazioek izan duten kontrola, bai proiektuaren exekuzioaren gainekoa, bai diru-laguntza eta aurrerakinak kobratzeko egindako eta justifikatutako gastuen gainekoa ez da behar hainbatekoa izan.
2. Ikerketa 2006 eta 2008 programei dagozkien laguntzetan lehia eta objektibotasun printzipioak urratu dira, eskabide modura dokumentazio osagabea eta deialdian zehaztutako epea ireki aurretik onartu delako.

3. Berebat, 2008ko ekitaldiko Ikerketa programaren kontura emandako laguntzarekin, aipatutako programan araututako diru-laguntzaren zenbatekoaren mugak gainditu dira.
4. BFAk emandako diru-laguntzan eta EAEk emandako batean, biak ere zuzenean eta 2 milioi euroren zenbatekoarekin emanak, urratu egin da emakida molde hau arautzen duen arautegi ezargarria.
5. Karrantzako Minda, SLk egindako hainbat gastu eta inbertsio justifikatzeko aurkeztutako dokumentazioak ez ditu emakidan ezarritako baldintzak betetzen. Gastuen justifikazio modura lantegian egindako inbertsioei ez dagozkien gastuak onartu dira, aurrerakinei dagozkien fakturak eta ez obren egikaritza edo gastuei; obrari ekin aurretik jaulkitako obra ziurtagiriak; eta azkenik, onartutako inbertsioen aurrekontuan barne hartu gabeko gastuak.
6. Ez dira bete 2006 eta 2008 ekitaldietan Ikerketa programak babestutako proiektuak egikaritzeko ezarritako baldintzak eta honenbestez, itzultzeko daude 1,5 milioi euroren zenbatekoan emandako aurrerakinak eta EAEk 2008 eta 2009ko ekitaldietan, 1,7 milioi euroren zenbatekoan, emandako diru-laguntzen dagozkien itzulketak.
7. Txosten hau onetsi den datan, Estatuko eta EAEko Administrazio Orokorrak abiaraziak dituzte emandako laguntzak itzularazteko espedienteak. Bestetik, BFAk espedienteak abiarazi du emandako diru-laguntzen itzulketa egokia den zehazteko.